
BOSGARREN ZUTABE DIGITALA. NET-ARTETIK HARATAGOKO PROIEKTU BAT

CIBERGOLEM

Cibergolem, Andoni Alonso eta Iñaki Arzoz-en heteronimoa da, ziberkultura kritikoaren proiektu bat garatzen ari da, duela hamarkada bat hasita. Beste lan batzuen artean, *La nueva ciudad de Dios. Un juego cibercultural sobre el tecno-hermetismo* (Siruela, 2002 -www.siruela.com/ncd) liburua argitaratu du; honetan, modu ironikoan salatzen du filosofia tekno-hermetiko eta erlijio digitalista baten sorrera. Beste lan batzuk ditu *Basque Cyberculture* (University of Nevada, 2003), euskal ziberkulturari buruzko lehenbiziko ikuspegi kritikoa, eta *Carta al homo ciberneticus* (Edaf, 2003), ZTG-ren eskuliburu ekintzaile bat. 2002az geroztik, Cibergolem teknologiaren eta ziberkulturaren inguruko bere proiektu kritiko ekintzailearen hurrengo fasea ari da garatzen, “hiperpolitika” kontzeptua hartuz politikaren ikuspegi alternatibotzat ziberkulturaren eta globalizazioaren aroan.

Hiperpolitika Peter Sloterdijk abiapuntu harturik birlandutako kontzeptu bat da, hiperfilosofiarekin (izaera filosofiko, partaidetzazko, elkarrekintzazko eta progresiboa duen hipertestuarekin) lotua. Era berean, harreman handia du demokrazia formal edo ordezkartzazkoarekin kritiko ageri den zenbait kontzepturekin, hala nola Michael Hardt eta Toni Negri Spinozagandik berreskuratutako “demokrazia absolutuarekin” edo Benjamin Barber-en “demokrazia sendoarekin”.

Alabaina, gure proposamenak zentzu espezifikoak du, alterglobalizazioaren planteamenduen berrikuspen hiperfilosofiko eta ziberkultural gisa “anarkismo epistemologikoaren” begirada kritikotik abiatuz (Paul Feyerabend), eta bat etorritik *bosgarren zutabearen* estrategiarekin, globalizazioaren barneko aktibismoaz. Halaz, hiperpolitikaren ezaugarri batzuk honakoak izango liriteke:

- partaidetzazko demokrazia maila guztietan
- (tekn)utopiaren eta bortizkeriaren bazterketa
- nazio birtualen sorrera
- aktibismoa eta hacktibismoa koordinatzea
- bere globalismoaren zentzu komunitarista
- irudimena eta umorea dogmen aurkako arma gisa
- programa komun hiperfilosofiko baten beharra
- Inperioa Errepublika global bihurtzea

Bosgarren zutabearen estrategia bat planteatzeak *konfrontazio* taktikak baztertu eta *sorkuntza* taktikak bereganatzera behartzen ditu (hack)tibistak; eta taktika berri hauetan, hain justu, arte guztiek zeresan handia dute.

Ildo honetatik, bosgarren zutabeko hiperpolitikari buruzko gure proiektua, hasiera batean, sareko eta sare erako proiektu artistiko gisa garatzen da.

Artearen eta post-abangoardien krisialdiaren garaian, hori gainditzeko moduetako bat tekno-arte da, hain zuzen ere; zehatzago esanda, *net-art* ekintzailea.

Dena dela, hiperpolitikari buruzko proposamenak benetan zentzua izan dezan, urrunago joan behar da: produkzio gisako artetik hiperpolitikara herri-arte berriztat.

Horrela berreskuratuko da arte-bizitzaren ideia hiperpolitikan, edozein hiritarrentzako bizitza-estilo eta bosgarren zutabeko konpromiso etiko gisa.

Azken batean, artea bizitza-arte bihurtzen da, artetik eta ez-artetik haratago, benetako “demokrazia zuzenaren” (Joseph Beuys) sorkuntza hiperpolitiko gisa; honetan, hiritarren eta kolektibo ekintzaileen partaidetza funtsezkoa da, erretagordia ekintzaile bati eutsi ahal izateko.

Orain artean, bosgarren zutabeko hiperpolitikari buruzko proposamenak hainbat ahalegin eta esperimendu fase izan ditu, zarata handirik atera gabe, Cibergolemen ekimenen inguruan, Tester proiektutik abiatuz eta, baita, modu paraleloan, beste eremu batzuetan ere.

Honakoak izan dira:

1. Bosgarren zutabeko hiperpolitikaren zabalkundea:

-Tester proiektuaren barnean, *Tester. Adabegiak lanean* liburuan (2004); eta proposamen honetan bertan Cibergolemgo lagunekiko lankidetzak, beren liburutegirako testuak eta ikurrak prestatzeko.
-Cibergolemek tratatu-kontrako bat erredaktatzea, saiakera-fikzio gisa, *La quintacolumna digital* izenburupean.
-web orria, honetan aurkeztuko baitira tratatu-kontrako horren hainbat material osagarri, bosgarren zutabeko kide gisako zenbait ekimen biltzearekin batera. Ikusi www.quintacolumna.unex
-hiperpolitikari dagozkion alderdi zehatzei buruzko testu pedagogikoen banaketa; hauen artean, esate baterako, Flash Boletín HiperPolítica

2. *Curso quintacolumnista sobre hiperpolítica* delakoaren sorrera:

-laneko zelula, Cibergolem/Tester-en inguruan bosgarren zutabeko hiperpolitikari buruzko hausnarketarako lan egin duen adabegitik abiatua, eta geroago laguntzaile zenbaitez handiagotua; honen eginkizuna ez da soilik hiperpolitika teorizatzea eta dibulгатzea, baizik eta gizarte zibilaren hainbat esparrutan praktikara eramatea.

3. *Corsok* bosgarren zutabearen taktikak aplikatzea:

-Cibergolemen lehenbiziko ekintzak, marka kortsario gisa, batez ere arte, hezkuntza eta politikari dagokienez.

Fase guztiak, gaur egun, aktibatuta daude, maila desberdinez. Hiperpolitikaren erretze une hauetan, kontzeptua bera dispositibo ekintzaile gisa zabaltzea bezain garrantzitsua da bosgarren zutabearen taktikak, infiltrazio erakoak, zabaltzea.

Guk Tester ekimenari eginiko azkeneko ekarpena **HiperEuropa'05** proiektuaren barnean egin *e-mail-art*-eko mikroekintza bat da; aipatu proiektu horrek, hiperpolitika alternatiboak modu ekintzailean aurre egin behar dion arronkarik berehalakoena du langai: europar konstituzioa.

Orain artean, europar konstituzioaren inguruko plataforma kritikotetan bosgarren zutabe gisako partaidetza izan du elementu nagusi proiektuak, Espainian egindako erreferendumari buruz (2005eko otsailak 20) prentsa erregionalean hainbat artikulua argitaratzearekin batera.

Mikroekintza honen asmoa *-Hogeita hamasei estrategia* tratatu anonimo txinatarren egokitzapen batean oinarrituta dago- beste hondar ale bat izatea da, europar sistema konstituzionalaren aurreko erresistentzia areagotzeko bidean; eta helbururik hurrekoena du, berriz, konstituzioari baietza edo ezetza emateaz haratago inolaz ere, Europan hiperpolitika garatzea.

Info HiperEuropa'05 mikroekintza

-Hiperpolitikari eta europar konstituzioari buruzko Flash Boletín bidaltzea prentsa, fanzine eta webzineetara, eta e-mail eta sms bidez, berriz, lagun, foro eta erakundeetara.

e-mail bertsioa:

Orain onartzeko aurkezten den europar konstituzioak krisialdian den ordezkartzazko demokrazia formalaren sagaratzea irudikatzen du.

Demokrazia murriztu eta zaharkitu honen aurrean, bada alternatiba bat: hiperpolitika edo hiritarren politika. Ikuspegi hiperpolitiko batetik, edukien azterketa baino gehiago, erabakigarria zera dugu, konbentzio itxi batek propaganda instituzional manipulatzaila prestatzeko prozesua, eta honekin batera konstituzioa bera aldatu ahal izateko Estatuak ia-ia erabat blindatu duten mekanismoa onartzea.

Nola lor dezake hiritar batek Europa demokratikoagoa izatea, hau da, hiperpolitikoagoa izatea? Bosgarren zutabe gisa arituz prozesu konstituzionalean, eta deituta dauden erreferendumetan bere aukerak baloratuz: -baiezko zein ezezko botoak joko-arauen onartzea adierazten dute; era berean jotzen dute boto zuriaren definiziorik ezak edo abstentzio pasiboak ere.

-konstituzioaren aurkako mezu bat daraman boto baliogabea protesta sinbolikorako eredu bat izan daiteke, mezu berbera erabiliz gero, eta mezu hau adierazgarria edo masiboa izatera helduz gero. -abstentzio aktibo deitua, beste konstituzio baten aldeko lan ekintzailearen bidez.

Helburu estrategikoa hiperpolitikak aurrera egitea da, baina maila taktiko bat baino gehiago egon daiteke:

-konstituzioa ez onartzea, erreferenduma egingo den herrialdeetako batean berretsi ez dutelako. Mikroekintza hacktibisten bidez eragitea erreferenduma egin behar duten herrialdeetan.

-onartzen bada, garaipen pirriko bat izan dadila, ezezkoaren aurkaritza garrantzitsu batez eta abstentzio aktiboaz, hain zuzen iritzi europar kritiko eta alternatibo baten sorrerarako bidean (Irakeko gerran bezala), *euroeszeptikoengandik* bereizirik inolaz ere.

Konstituzioaren garaipenak eta europar oposizio hiperpolitiko baten porrotak, halaz, bosgarren zutabe baten infiltrazio prozesuaren hasiera ekarri behar dute, antzeko beste taktika batzuekin batera. Europar konstituzioa onartu edo ez onartu, bosgarren zutabearen infiltrazio estrategia abian jarriko da, sakoneko lan hiperpolitikoa garatzeko, lehenik bosgarren zutabearen konpromisozko Deklarazio bat izenpetuz eta banatuz.

Bosgarren zutabearen konpromiso Deklarazioa eragile hiperpolitiko bikoitz gisa. Deklaraziorako eredia:

konpromisoa hartzen dut, urtebeteko epean europar instituzio, erakunde edo alderdiren batean infiltratzeko edo horien barnean adabegi bat sortzeko, bosgarren zutabe gisa hiperpolitika alternatiboa garatzearren konpromisoa hartzen dut hiperpolitika zabaltzeko, sustatzeko eta praktikara eramateko: partaidetzazko demokraziaz, programa komun hiperfilosofiko batez, irudimen eta umore kritikoaz, (hack)tibismoa eta Inperioa Errepublika global bihurtuz

+ izena edo ezizena

Europak eta munduak bueltaka jarraituko dute, baina garrantzitsua zera da, gu geu gai izatea geure ekintzen bidez erresistentzia gero eta eraginkorrago bat sortzeko. Bosgarren zutabearen bidez hiperpolitikaren alde aritzeko egiten dugun erronka da net-art-etik haratago egiten dugun ahalegin eta esperimenezko ekarpena.

Baina, bosgarren zutabearen trebatu nahi baduzu, oraintxe duzu aukera Cibergolemen bosgarren zutabe digitalean infiltratzeko.

Jar zaitetz gurekin harremanetan, kontatu zure esperientziak, eta zure testuak bidali. Zure laguntza behar dugu, artetik edo beste eremu ekintzaile batzuetatik, hain zuzen

Hiperpolitikarako estrategia eta taktiken bosgarren zutabearen 1. Potlacha aurrera eramateko

Zure ekarpenekin eta *Corso quintacolumnista*-renekin, Cibergolemen hurrengo ekintza prestatuko dugu, honakoa: *Behemoth vs. Leviatan*.

Informazio gehiago www.quintacolumna.unex orrian.

(Kopiatu, banatu eta Cibergolemera bidaltzeko testua)

Cibergolemek garbi ikusten du *hiperpolitikaren arte* sortu berriaren prekaritasuna, batez ere epe luzeko estrategia komun baten garaipen progresiborako oinarriak finkatzeko bere ekimen guztien porrot taktikoa gertatu delarik.

Horregatik, zure partaidetza izatea espero dugu,

bosgarren zutabetik, agur